

# PLANGINTZA 2021 martxo – uztaila

Azken Bizkarrezurrean eta herrialde batzarretan hitz egindakoak aintzat hartuz egokitutako plangintza da honakoa. Bizi dugun egoeran, litekeena da epeak eta datak aldatu behar izatea. Edozein kasutan, eraginkorra izan da panorama konplexu honi buruz elkarrekin hausnartzea eta zer egin nahi dugun adostea, ahal dugun neurrian eta egoerara egokitzuz, bidera dezagun.

Hamaika Gara ekimena urte amaierara arte luzatzea erabaki dugu, baina oraingoz, uda bitarteko plangintzari begiratuko diogu. **Mugarri eta erronka zehatzak** jarri ditugu gure taldeen ahalegina horietara bideratzeko eta gure inguruko jendea *misio* zehatzen inguruan berraktibatzeke. Datozen hilabetei begira, hiru helburu nagusi antzeman ditugu: 1) **ekimena ezagutzera ematen jarraitzea**; 2) gure taldeak indartuko dituzten eta sinadura bilketan aktibo izango ditugun **bidelagunak batzea** eta 3) inpaktu komunikatiboa baliatuz, gure **eragiteko gaitasuna biderkatzea**.



## EZAGUTZERA EMATEKO:

### - 'Altxa!' ekitaldiaren proiektioak eta aurkezpenak

'Altxa!' ekitaldia Hamaika Gara ekimenaren aurkezpen gisa baliatzeko material egokia da ([www.gureesku.eus](http://www.gureesku.eus) eta [www.hamaikagara.eus](http://www.hamaikagara.eus) webguneetan dago ikusgai). Urriak 31n zuzeneko proiektioak egiteko asmoa genuen hamarnaka herritan, baina kasu gehienetan, bertan behera utzi behar izan genituen. Orduko asmoa berrartu, eta aukera ikusten dugunean, proiektioak antola genitzake, eta aurkezpen edo batzarrekin uztartu ala hauetara dei egiteko baliatu. Jakina, formatu txikian, aforoa mugatuz eta erabilgarri dauden espazioetan egiteko modua bilatu beharko genuke.

### - Hamaika Gara solasaldiak (otsailtik ekainera)

Burujabetza eta erabakitzeke eskubidearen inguruko eztabaida elikatzea eta beste hainbat gai edo alorrekin izan lezaketen intersektionalitatea aztertzea dute helburu. Hamaika Gara ekimenaren sustatzaile diren Euskal Herri mailako eragileekin, sustatzaile izan gabe ere solasaldien antolakuntzan parte hartu nahi izan dutenekin eta Berria egunkariarekin elkarlanean antolatzen ari gara. Solasaldiak aurrez-aurre grabatzen ditugu eta online ikus daitezke, zuzenean, [www.hamaikagara.eus](http://www.hamaikagara.eus) eta [www.berria.eus-en](http://www.berria.eus-en). Hamaika Gara-ren webgunean egitaraua kontsultatu eta saioak nahieran ikus daitezke.

## EZAGUTZERA EMATEKO + BIDELAGUNAK BATZEKO:

### - #11SinadurenErronka (martxotik aurrera)

“Sina ezazu, eta saia zaitetz beste 11 lagunuen sinadurak lortzen”. Jendeari transmititu behar diogu manifestua sinatu bakarrik ez, eta bere ingurukoek ere sina dezaten saiatzea proposatzen diogula. Katea ez dadila sinatzaileengan eten, izan daitezela beraiek ere beste jende batengana iristeko katebegi. Sinadura bilketa masibo izan dadin, ahalik eta jende gehien bilakatu beharko da, neurri handiago ala txikiagoan, sinadura biltzaile. #11SinadurenErronka, beraz, sare sozialetarako kanpaina bat izateaz gain, sinadura bilketan zabaldu beharko dugun filosofia edo egiteko modu bat ere izango da.

### - Eskumuturrekoen lanketa (urte osoan zehar)

Eskumuturrekoak ez dira *merchandising* elementu hutsa; helburu bikoitza dute: ekimenaren finantziario iturri nagusietako bat izan beharko liriateke, eta era berean, kanpainak kalean presentzia irabazteke modu bat, sinatzaileok eskumuturrekoaren bidez gure atxikimendua eta konpromisoa erakusten baitugu. Honenbestez, *online* eskuratzeko aukera emateaz gain, ezinbestekoa izango da herrietan ere erosteko tokiak ahalbidetzea eta non eskura daitezkeen behar bezala komunikatzea. Era berean, Berria egunkariarekin batera eskuratu ahalko dira apirilaren 17-18 eta 24-25, eta maiatzaren 1-2ko asteburuetan.



### - **Kanpaina eguna (apirilak 17-18)**

Orain arte ezin izan duguna egitera goaz: herriz-herri antolatuko gara asteburu berean kalea hartzeko eta sinadura bilketaren kanpaina egiteko. Herri bakoitzaren dimentsioen eta baldintzen arabera, ikusiko dugu zein den aukera bideragarri eta eraginkorra: batzuk mahaia jarriko dituzte auzoz auzo; beste batzuk, atez ate, buzoiz buzo edo atariz atari joango dira esku-orriak banatzen eta kartelak pegatzen. Herri bakoitzak bere modura egingo du; argi izan behar dugu nonbaitetik hasi beharra dagoela eta xumea iruditu dakigukeen ekintza hori ere martxan jartzeko abiapuntu egokia izan daitekeela. Ekintza honek bi helburu nagusi izango ditu: 1) sinadura bilketan aktibo izan litekeen jendea batzea, eta 2) ekimenaren berri ahalik eta herritar gehienei iristea.

\* Apirilak 17-18ko asteburua pasata Bilboko mobilizaziora arte, hamaika asteburu izango ditugu. Zenbaki esanguratsua eta aitzakia polita izan liteke, adibidez, herrian txandak antolatuz, kalera mahaia ateratzeko edo bururatzen zaigun beste edozein ekintzatarako.

## **EZAGUTZERA EMATEKO + BIDELAGUNAK BATZEKO + ERAGINA BIDERKATZEKO:**



### - **Dantzaren erronka (maiatzetik aurrera)**

Hamaika Gara abestiaren estribilloaren koreografia masibo bat dantzatzea izango da Bilboko mobilizazioko bereizgarri edo 'jokoa', eta nahi izanez gero, aurrekari bezala, maiatzak 22ko herri edo eskualdeetako mobilizazioetan ere egin dezakegu. Koreografia sinplea izango da, edonork dantzatzeko modukoa, baina era berean, izango du zerbait *challenge* edo erronka bilakatzea erraz lezakeena. Duplak eta Itziar Ituñok berak botako dute erronka, eta batik bat, Tik-Tok edo Instagram bezalako sare sozialen bidez jende gaztea aktibatzen asmoz planteatzen da. *Ituño efektuari* esker, bideoklipa mundu osoan zabaldu da; zergatik ez baliatu olatu hori eta erronka bota ia zenbat tokitan dantzatzen dugun Hamaika Gara? Izan litezke urrutiko lekuak ala Euskal Herrian bertan, toki bitxiak. Eskumuturrekoa dantzarako ia ezinbesteko elementu bilakatzen saiatuko gara.



### - **Herri edo eskualdeetan mobilizazio eguna (maiatzak 22)**

Herri edo eskualde mailako mobilizazio edo ekintza egun bat antolatuko dugu. Ekimena ezagutzera emateko, jendea aktibatzen, sinadurak biltzeko eta uztailleko mobilizaziorako lanketa egiteko baliatuko dugu. Uztailan Bilboko Areatzan egingo dugun mobilizaziora keinua eginez, ibai ingurua baliatzeko aukera proposatzen dugu, betiere, ibaiak herriaren erdigunea zeharkatzen duen herrietan.



### - **Mobilizazioa Bilboko Areatzan (uztailak 3)**

Kale okupazio bat izango da, Bilboko Areatza inguruan, Arriaga eta udaletxeko zubiak eta batetik besterako pasealekuak hartuz. Ekitaldi politiko-kultural bat egingo dugu, eta dantzaren erronka bertara ere eramango dugu, Dupla eta Itziar Ituñorekin batera. Beste hainbat kultur gilek ere parte hartuko dute, ibaia eszenatoki bezala baliatuz. Egoeraren baitan egokituiko dugu jende kopurua, aforoa zabaldu edo mugatuz.

### - **Kataluniarrekin elkarlanean ekintza Pirinioetan (uztailak 10)**

Datorren urteko udaran euskal herritarrok eta katalanak Pirinioetako hainbat gailurretara igo eta bi herriak batuko dituzten argi-kateak osatuko ditugu. ANC, Omnium Cultural, FEEC Kataluniako Mendi Federazioa eta Llum i Llibertat-ekin elkarlanean antolatuko dugu mobilizazio erraldoia. Indarrak batuko ditugu eta auzi territorialak nazioarteko testuinguruan eta politikoki bideratu behar direla aldarrikatuko dugu lau haizetara. Mobilizazioa antolatzeko denbora gehiago beharko dugula baloratuz eta datorren urtean askoz egoera hobean egongo garela, 2022an egitea erabaki dugu. Edonola ere, elkarlanean urratsak egiten hasteko borondateak bultzatuta, ekintza sinboliko bat egingo dugu Euskal Herriko eta Kataluniako mendi bana argizatuz, elkarrekin egingo dugun bidea argizatzen hasi eta datorren urtekoa iragartze aldera.



# PLANNING *marzo-julio 2021*

Este *planning* ha sido adaptado tras la última sesión Bizkarrezurra y las últimas asambleas territoriales. En la situación que nos ha tocado vivir, es posible que tengamos que cambiar los plazos y las fechas previstas. En cualquier caso, hemos tenido la oportunidad de reflexionar conjuntamente sobre este complejo panorama y acordar qué queremos hacer para, adaptándonos a cada situación, poder llevarlo a cabo.

Hemos decidido prolongar la iniciativa Hamaika Gara hasta finales de año, pero de momento, nos fijaremos en el *planning* de aquí al verano. Planteamos hitos concretos con la intención de orientar los esfuerzos de nuestros grupos hacia estos y reactivar a la gente en torno a 'misiones' concretas. De cara a los próximos meses hemos detectado tres objetivos principales: 1) **seguir difundiendo la iniciativa**; 2) **sumar gente** que vaya a fortalecer nuestros grupos y nos vaya a ayudar con la recogida de firmas y 3) buscar un impacto comunicativo que nos vaya a permitir **multiplicar nuestra capacidad de influencia**.



## PARA DIFUNDIR LA INICIATIVA:

### - Proyecciones y presentaciones del evento 'Altxa!'

El evento Altxa! es un material apropiado para dar a conocer la filosofía y el objetivo de nuestra iniciativa (disponible en [www.gureesku.eus](http://www.gureesku.eus) y [www.hamaikagara.eus](http://www.hamaikagara.eus)). El 31 de octubre, teníamos previsto realizar proyecciones en directo en decenas de localidades, pero en la mayoría de los casos tuvimos que cancelarlas. Cuando lo veamos conveniente, podríamos retomar la idea y organizar proyecciones en las que podamos hacer también presentaciones o asambleas, o aprovechar para convocarlas. Por supuesto, abría que hacerlo en los espacios que están disponibles a día de hoy y limitando el aforo.

### - Hamaika Gara solasaldiak (febrero-junio)

El ciclo de coloquios tiene como objetivo fomentar el debate sobre la soberanía y el derecho a decidir y analizar su interseccionalidad con otros temas o ámbitos. Lo estamos organizando en colaboración con los agentes promotores de la iniciativa Hamaika Gara, con otros agentes que, sin ser promotores han querido participar en la organización de los coloquios, y con el periódico Berria. Grabamos las tertulias en vivo y las emitimos en directo en [www.hamaikagara.eus](http://www.hamaikagara.eus) y [www.berria.eus](http://www.berria.eus) Se puede consultar la programación y ver los coloquios a la carta en la web de Hamaika Gara.



## PARA DIFUNDIR LA INICIATIVA + SUMAR GENTE:

### - #11SinadurenErronka (a partir de marzo)

"Firma y trata de conseguir las firmas de otras 11 personas". Tenemos que transmitir a la gente que, además de firmar el manifiesto, le proponemos el reto de intentar que la gente de su entorno haga lo propio. Para que la recogida de firmas sea masiva, será necesario que el mayor número de personas posible se convierta en un activo para la misma. #11SinadurenErronka será, por tanto, además de una campaña enfocada a redes sociales, una filosofía o forma de hacer que tendremos que difundir durante la campaña.



### - Difusión de las pulseras (durante todo el año)

Las pulseras no son un mero elemento de *merchandising*; tienen un doble objetivo: deberían ser una de las principales fuentes de financiación de la iniciativa, y asimismo, una forma de que la campaña gane presencia en la calle, ya que los firmantes mostramos nuestra adhesión y compromiso a través de la pulsera. Por lo tanto, además de la venta online, será imprescindible que los pueblos también faciliten lugares donde comprarlas y comuniquen adecuadamente cuáles son. Asimismo, se podrán adquirir con el diario Berria los fines de semana del 17-18 y 24-25 de abril y 1-2 de mayo.



### - **Día de campaña (17-18 de abril)**

Vamos a hacer lo que no hemos podido hasta ahora: nos organizaremos de pueblo en pueblo para volver a las calles y hacer campaña para recoger firmas. En función de las dimensiones y condiciones de cada pueblo, veremos cuál es la opción más viable y eficaz: en algunos pueblos pondrán mesas en cada barrio; en otros irán repartiendo folletos y pegando carteles *puerta a puerta*, *buzón a buzón* o de *portal en portal*. Cada pueblo lo hará a su manera, y tenemos que tener claro que por algún lugar hay que empezar y que esa acción que nos puede parecer sencilla puede ser un buen punto de partida para ponernos en marcha. La acción tendrá dos objetivos principales: 1) sumar gente que pueda ser un activo en la recogida de firmas, y 2) tratar de que la información sobre la iniciativa llegue al mayor número de personas posible.

\* Pasado el fin de semana del 17-18 de abril, quedarán once fines de semana hasta la movilización de Bilbo. Un número significativo y una bonita excusa para, por ejemplo, organizar turnos para poner mesas en la calle o realizar cualquier otra acción.

---

## PARA DIFUNDIR LA INICIATIVA + SUMAR GENTE + MULTIPLICAR EL EFECTO



### - **El reto del baile (a partir de mayo)**

Una coreografía masiva del estribillo de la canción Hamaika Gara será el 'juego' o distintivo de la movilización de Bilbo, y si se quiere, como precedente, también se puede hacer en las movilizaciones del 22 de mayo. La coreografía será sencilla, para que lo pueda bailar cualquiera, pero también tendrá algo que la convertirá en *challenge* o reto. Dupla y e Itziar Ituño lanzarán el reto, que se plantea sobre todo con el fin de activar a la gente joven a través de redes sociales como Tik-Tok o Instagram. Gracias al efecto *Ituño*, el videoclip se ha extendido por todo el mundo; ¿por qué no aprovechar esa ola y plantear el reto de bailar Hamaika Gara en los lugares más originales o remotos? Intentaremos convertir la pulsera en un elemento casi imprescindible para el baile.



### - **Día de movilizaciones en pueblos y comarcas (22 de mayo)**

Organizaremos una jornada de acciones a nivel local o comarcal para dar a conocer la iniciativa, recoger firmas y activar a la gente de cara a la movilización de julio. En un guiño a esta cita, que tendrá lugar en el Arenal bilbaíno, proponemos aprovechar el entorno fluvial, obviamente, siempre y cuando el río atraviese el centro de nuestra localidad.



### - **Movilización en el Arenal de Bilbo (3 de julio)**

Se tratará de una ocupación del espacio público en la zona del Arenal bilbaíno, tomando los puentes del Arriaga y del Ayuntamiento y los paseos que los unen. Realizaremos un acto político-cultural y llevaremos a cabo el reto del baile junto a Dupla e Itziar Ituño. Con la ría como escenario, disfrutaremos también de actuaciones de otros artistas. Nos adecuaremos a la situación pudiendo ampliar o limitar el aforo.

### - **Acción conjunta con los y las catalanas en los Pirineos (10 de julio)**

El verano del año que viene los y las vascas y catalanas ascenderemos a una serie de cumbres pirenaicas y formaremos cadenas de luz que unirán nuestros pueblos. Esta gran movilización contará con la colaboración entre Gure Esku, ANC, Òmnium Cultural, la FEED Federación Catalana de Montaña y Llum i Llibertat. Aunaremos fuerzas y proclamaremos a los cuatro vientos que las cuestiones territoriales deben encauzarse en el contexto internacional y políticamente. Habiendo previsto que el año que viene vayamos a gozar de una situación más favorable, hemos decidido hacerlo en 2022. En cualquier caso, motivados por la voluntad de comenzar a dar pasos conjuntamente, realizaremos una acción simbólica que consistirá en iluminar sendos montes de Euskal Herria y Cataluña, para empezar a vislumbrar el camino que vamos a recorrer juntas y anunciar la movilización del año que viene.

